

EDOZERK BALIO DU SOLDATAK MOZTEKO

**“GOBERNUEK NAHI DUEN GUZTIA
EMATEN DIOTEN
ARTEAN, CONFEBASKEK LAGUNTZA
SINDIKALA BILATZEN DU”**



EDOZERK BALIO DU SOLDATAK MOZTEKO

“GOBERNUEK NAHI DUEN GUZTIA EMATEN DIOTEN ARTEAN, CONFEBASKEK LAGUNTZA SINDIKALA BILATZEN DU”

CONFEBASKek lau sindikatuei (ELA, CCOO, LAB y UGT) dei egin die Euskal Autonomi-Erkidegoko negoziazio kolektiboaren egiturari buruz Lanbidearteko Akordio bat egite aldera. Gai hau aztertzeko ELAk patronalarekin bi bilera izan ditu, eta parte ez hartzea erabaki du. Jasotako idatzi baten arabera, akordioaren inguruko lehen bilera joan den abenduaren 22an egin zen.

Ez joateko erabakia hartu aurretik honako azterketa egin genuen:

ZEIN DA ABIAPUNTUA?

1.- SOLDATEK ABERASTASUNAREN ZATI HANDI BAT GALDU DUTE. Duela urte asko politika neoliberalak daude indarrean, kapitala metatzeko helburuarekin (krisiaren zinezko arrazoa, alegia). Erreforma laboralak, prekarietate eta soldata urriak gero eta hedatuago, lanaldi luzeagoak, lan-baldintza txarrak... Erreformak banaketa-tresnak ahultzeko egin dituzte. Errealitatea gordina da: sinatutako hitzarmenak ere sarritan ez dira betetzen, lan-agintaritzaren lankidetzaz, honek ez baitu ezer egiten. Adibide argia dugu eraikuntzan bizi den egoera: enpresa nagusiek azpikontrata katea erutzen dute, eta langileek 12 eta are 14 orduz lan egitera behartzen dituzte, orduko 4-5 € jasotzen dutelarik.


ELAko Azterketa Bulegoak duela gutxi argitaratu duen txosten batek dioenez, soldatek Hego Euskera Herrian aberastasun osoaren banaketan 7 puntutik gora galdu dute. Duela egun batzuk Ekonomia-Lankidetzeta eta -Garapenerako Erakundeak berak kaleratutako txosten batean jakinarazi du pobre eta aberatsen arteko desberdintasuna asko areagotu dela, eta honen arrazoietakoa bat prekarietatearen ondorioz ireki den soldaten arteko tartearen omen da. Espainiar Estatu –Euskal Herria ez dago atzerago– desberdintasunaren hazkundeari dagokionez lehen postuetan dago.

Bada, gauzak argi dauden arren (soldatek hazkunde garaitan galdu egiten zuten, baita orain ere), errealitate latz honek ez du klase politikoaren zatirik handiena kezkatzen, eta sindikatu gutxiren estrategia baldintzaten du. Beste batzuk “moderazioa” laguntzen dute, hots, soldata galera.

Goian aipatutako ELAren txostenaren izenburuan (2011ko maiatza) soldatak gehitu beharra aipatzen zen, aberastasunaren banaketa zuzenagoa lortze aldera, eta agirian honako datuak agertzen ziren (hauetako batzuk eguneratu egin ditugu):

- EAEn 1980tik 2010era bitartean lan-errentek aberastasunean duten zatia 7,1 puntu murriztu da, BPGaren %57,1etik %50era pasa delarik; aldiz, enpresarien eta kapitalen errentak 5,5 puntu gehitu dira, BPGaren %36,1etik %41,6ra.
- 2010ean 1980ko aberastasun banaketa bera mantendu balitz, lan-errentek 4.680 milioi euro gehiago jasoko zuketena, eta soldatapeko bakoitzak, 6.100 euro gehiago.


ABERASTASUNAREN BANAKETAREN BILAKAERA (BPG %). EAE, 1980-2010



Txosten berean lan-kostuei eta produktibitateari buruzko datuak jasotzen ziren; datuon arabera, lan-kostuak Europako batez bestekoaren azpitik daude, eta produktibitatea, berriz, askoz handiagoa da.

EAEko lan-kostuak Europako Batasuneko 27 estatuetako batez bestekoa baino %11,4 txikiagoak dira, eta Nafarroakoak, %15,7 apalagoak. Egia da, grafikoan ikus daitekeenez, gure lan-kostuak Espainiar Estatukoak baino handiagoak direla, baina begibistakoa da ere Suedia, Belgika, Frantzia edo Alemaniakoak baino askoz txikiagoak direla; hauek Europako batez bestekoaren gaineratik daude, %54,5, %37,8, %31,6 eta %28,5, hurrenez-hurren.

LAN-KOSTUA ESTATUKA (EB-27 = %100). 2007 Iturria: Eurostat-INE



Bestalde, Eustatek emandako produktibitate datuek –EAERI buruzkoak besterik ez daude– erakusten dute irizpide homogineoekin EAEko produktibitatea EB-27ko altuenen artean dagoela. Hain zuzen, EB-27ko batez besteko produktibitatea 2009 ekitaldian 100 izan bazen, EAEkoa 132,4an zegoen. Irlanda (135,2) eta Luxemburg (167,9) dira EAEkoa baino produktibitate handiagoa duten estatuak. Danimarkak (100,6), Alemaniak (104,5), edo Suediak (111,5) EAEkoa baino produktibitate maila txikiagoa lukete.

ENPLEGATUKO LAN-PRODUKTIBITATEA ESTATUKA
(EB-27=%100). 2009

ESTATUA	ENPLEGATUKO LAN-PRODUKTIB.	ESTATUA	ENPLEGATUKO LAN-PRODUKTIB.
Bulgaria	37,2	Grezia	102
Errumania	47,1	Alemania	104,5
Letonia	49,9	Finlandia	107,1
Lituania	55,8	Italia	109,7
Estonia	64,4	Erresuma Batua	110,1
Polonia	65,2	E. espainiarra	110,8
Hungaria	70,2	Holanda	110,9
Errep. Txekiarra	71,8	Austria	111,5
Portugal	73,9	Suedia	111,5
Eslovakia	78,9	E. frantsesa	120,5
Eslovenia	82	Belgika	124,9
Malta	88	EAE	132,4
Zipre	88,7	Irlanda	135,2
EB-27	100	Luxemburg	167,9
Danimarka	100,6		

Iturria: Eustat

Enplegatuko produktibitate handiagoa izateak adierazten du enplegu gutxiagorekin gehiago ekoizten dela. Krisialdian produktibitate aldea handiagotu egin da. BPGaren bilakaera Hego Euskal Herrian eta Europako Batasunean antzekoa izan den arren, bertan askoz enplegu gehiago suntsitzen da.

Hego Euskal Herrian langabezia tasa %14an dago, EBko batez bestekotik (%9,8) askoz gorago. Gure langabezia tasa handiagoa da, eta Europako gainerako tokietan baino azkarrago ari da hazten. Hau ez da gertatzen hemen krisia handiagoa delako, BPGaren joera ez baita oso desberdina. Enplegu gutxiago izanik gehiago produzitzeak (hots, produktibitate altuak) langabezia gehitzea dakar. Honen alde egiten dutenek langabe kopurua gehitzearen alde dihardute. ELA politika honen aurka dago.

Halaber, txosten hark aipatzen zuen enpresen etekinak hazten ari zirela eta lan-kostuak, gutxitzen. Espainiako Bankuak finantzetakoak ez diren 744 enpresen (%12,1a) emaitza-kontua aztertu du, 2010 eta 2009 ekitaldiak alderatuz. Horrekin egindako txostenean emandako datuen arabera, etekinen eta lan-kostuen bilakaera kontrajarria da. 2010ean:

- Enpresen ohiko etekin garbia %6,5 gehitu da.
- Pertsonal-gastuak %1 gutxitu dira (batez besteko soldata-igoera %0,8 izan zen, eta enplegua %1,8 murriztu zen).

FINANTZETAKOAK EZ DIREN ENPRESEN EMAITZA-KONTUAREN URTE ARTEKO BILAKAERA, ERRENTABILITATEAK. ESPAINIAR ESTATUA, 2010-2009

	2010 / 2009
Pertsonal-gastuak	%-1
Ekitaldiko etekina	%6,5

Iturria: Espainiako Bankua

Ibex 35 indizeko enpresek Balioen Merkatuko Batzorde Nazionalera (CNMV) bidalitako datuen arabera, 2010ko ekitaldian 49.881 milioiko etekina lortu dute, hots, 2009an baino %24,5 gehiago. Enpresa handiek gainerakoek baino irabazi handiagoak lortzen dituzte.

2.- HALERE, ERREFORMEK SOLDATEI ERASOTZEN DIETE.

Erreformak patronalaren neurrira egiten dira, bai Zapateroren garaian, bai orain Rajoy prestatzen ari denean ere. Estatuko komunikabide batek presidente berriaren kargu hartzeko hitzaldiaren ondoren honako izenburua eman zuen: “Puntu eta jarrai politika ekonomikoan”. Egunkari berak zioenez, “azkenik amaitu da parlamentuko sesioa: Rubalcabak uko egin dio konfrontazio ideologikoari”. Aski nabarmena da Estatuan bipartidismoak krisialdirako politikak modu berean administratzen dituela.

Urte eta erdiko epean hiru erreforma laboral eta negoziazio kolektiboko bi daramagu. Langabezia eta pobrezia hazten ari dira. Alderdi horiek eta hauek babesten dituztenak krisiaz –eta eragiten duen zartadaz– baliatzen dira kapitalak aspaldian amestu baina gauzatzeko une egokirik aurkitu ezean egin gabe zegoena aurrera eramateko: Aberastasunaren banaketa bidezkoagoa egiteko tresnak suntsitu. Ez dituzte maite, traba egiten diete, eta politikak erretiluan eskaintzen dizkie.

Manipulazio itzela eginez, “eredu esportatzailea” hautatu dute, eta honetan aukera bakarra dago, soldatak debalutzea. Alderdi handiek gezurra esaten dute “arazoa” defizitan datzala esaten dutenean; gezurretan ari dira ere erreforma hauekin enplegua hazi egingo dela esatean. Beren erabakiek ekonomia kolapsora daramate eta langabezia eta txirotasuna areagotzen dute.

Ez da enplegurik sortzen; aldiz, enplegu duinaren ordezkariak sartzen da. Erreforma hauekin ordezkari-efektua bat eragiten dute. Enplegu duinak desagertzen dira, eta kontratu negargarriak hartzen dute haien tokia; soldata duina zuen langile baten postuan hiru behargin prekario jartzen dituzte, hirurek batera aurrekoaren soldata osatzen ez dutela. Alemanian 7,3 milioi langile ozta-ozta bizi dira “minijob” izeneko enpleguekin. Eskubiderik gabeko lanak, ezta negoziazio kolektibokoa ere. Duela gutxi DGB konfederazio alemaniarrek argitaratu duen txosten batek aztertzen du lan-baldintzetan eta negoziazio kolektiboan gertatu den txikizkia.

Alemaniko azalpena, gure herrikoa bezalaxe, oso argigarria da: negoziazio kolektiboaren arazo bakarra ez da bere egitura, zein esparrutan negoziatzen den erabakitzea alegia. Itxuraz, Alemaniak ez zeukan “negoziatio-esparruen egitura” arazorik; haatik, hainbat neurriren bitartez, lan-merkatua erabat desitxuratu dute. Erreformek –Alemanian sozialdemokratek egin zituzten– prekaritatea hedatu eta lanari gizatasuna kentzen diotenean, eta administrazioek prestazioak murrizten dituztenean, jendeak kontratu miserableak onartu beste erremediorik izan ez dezan, arazoa negoziatio kolektiboaren “egitura” baino askoz zabalagoa da, hau garrantzitsua izanagatik.

Erreformak epe luzera behatu behar dira. Eragin mailakatua, baina izugarria dute. Negoziatio-esparruak definitzen dituen egiturari (estatuko esparrua txirotasuna hedatzeko bermea da) erreibindikazio-edukiak gehitu behar zaizkio, eta gure iritziz garrantzi handiena duen beste zerbait, langileen antolakuntza sindikala, lortutako indar-erlazioari esker errespetaraztea ekarriko duena. Azken hau izango da erabakigarria, edozein dela ere egitura. Hala uste du ELAK.

Gure esperientzia –gurea eta beste herrietakoa– garrantzi handikoa da. Hortik atera behar dira lan sindikalerako ondorioak eta irizpideak. Adibidez, Argentinan ‘ajuste’ politikak urte anitzetan aplikatuta, soldatek aberastasunean zuten zatia %50etik %23ra murriztu zen, eta pobre kopurua milioi 1etik 15 milioira gehitu. Euskal Herriarentzat ez dugu gauza bera nahi.

Azterketa honen ondorioz, ELAK erabaki du sindikalismoak ezin duela lagundu bankuek, patronalak eta gobernuek daramaten langile-klasea txirotzeko estrategia; aitzitik, horren aurkako jarrera eta mobilizazioaren aitzindari izan behar du. Laguntzaile izatea ez da sindikalismoaren bidea; ez behintzat ELAren. Eragina duenaren plantak egitea, dena aldebakarreko denean, ez da inondik ere bidea.

3.- PATRONALA: XANTAIA EGITEKO AUKERA EZIN HOBEA.

Patronala lasai asko dago. Bere hitzak aipatzea aski da zer esan nahi dugun azaltzeko. Joan den astean CEPyMEko buruak esan zuenez, “ez daukagu interesik sindikatuekin akordioa lortzeko; Rajoyk nahi duguna emango digu”. Egia da, patronalaren asmoa ez da mugimendu sindikalarekin akordiorik lortzea. Zertarako, baldin badaki gobernuek nahi dutena emango diotela? Benetan beste zerbait nahi du, aldarrikapenak baztertzea, jokalekua libre izanik xantaia lasai egin dezan. Patronalak (CONFEBASK CEOE da) badaki aldebakarreko politika egiten dela, bere mesedetan.

Rajoyk esan du –zehaztasun handirik gabe– beste erreforma laboral bat eta negoziazio kolektiboko beste bat ere egingo dituela. Azken honi dagokionez, itxuraz bi hitzarmen mota utzi nahi ditu: estatu mailako sektore-hitzarmenak eta horren azpian enpresako negoziazioa, salbuespenak egiteko eta lan-baldintzak okertzeko aukera errazekin. Azken helburua enpresaburuari lan-baldintzak alde bakarreko erabakiz ezartzeko aukera ematea da. Rajoyk hitzez hitz esan du: “lehentasuna enpresako eta sektoreko akordioei emango zaie, lurraldekoen gainetik”.

Gainera, ezin da baztertu “lan-merkatuan sartzeko aukera erraztea” bezalako esaldiekin Alemaniako 'minijob' sistema ezartzeko asmoa mozorrotzen ari direnik, 400 euroko soldatekin. Eskuina, patronala eta “joera neoliberalesko sozialdemokrazia” aspaldian ari dira saiatzan edozein lan onartzea eragozten duten baldintza guztiak kentzeko. Langile merkeak, ezin merkeagoak, nahi dituzte.

Pribilegiozko kokapena duenez, patronala soldaten inguruko xantaia egiten hasi da eta Lan-Agintaritzarekiko lankidetzari zukua ateratzen dio (Gasteizen, eta areago Iruñean): enplegua suntsitzeko mehatxuari lan-eskubideen galera lotzen dio. Hau lortzeko lankidetzaren politikoa dauka, aurkezten dituen EEKak onesten baitizkiote, sarri inongo taxurik gabeak izanagatik.

Politikarien kezka bakarra langabeziaren estatistika da, eta hau edertzea ez da zaila, astean ordubete lan egiten dutenak lanaldi osoa dutenekin parekatuz. Bai, hala da, ordubetez lan egitea aski da estatistikan langabe ez izateko.

4.- CCOO ETA UGT: MONOPOLIO SINDIKALAREN ETA FINANTZAKETA PUBLIKOAREN BILA.

CCOOk eta UGTk Euskal Herrian zuritu nahi dute Madrilen duten jokabidea, politika zentralista eta antisozialekiko konplizitatea alegia. Zapateroren negoziazio kolektiboaren erreformaren egile ere badira (EAJK onartu zuen erreforma hura). ELA ez zegoen oker hori salatu zuenean; ez geunden oker ere sindikatuok Lan-Harremanen eta Gizarte-Babesaren Esparrua garatzearen erabat aurkakoak direla. Honetarako Espainiako gobernuen aliatu dira, edozein koloretakoa dela ere. Erreforma honetan onartutakoa Zapaterori eskatzen ziotenarekin bat dator: Egitura bertikala, oso zentralizatua, betidanik duten monopolio helburuaren zerbitzura, ez baitzaie axola berarekin dakarren txirotea.

Zer egin dute CCOOk eta UGTk erreforma onartu zenetik? Ez dira geldirik egon. Duela gutxi bi hitzarmen kolektibo argitaratu dira, Metalekoa bat eta Merkataritzakoa bestea; patronalarekin adostu dutenaren arabera, zentralizatzeko aukerak muturreraino eramanez nahi dituzte. Zein da hitzarmen hauen mamia?

- **1.- MONOPOLIOA eta BERTIKALISMOA:** Zentralizazioaren hautu argia egiten dute eta Langileen Estatutuko 84. artikulua estatu-esparruetarako gutxienezko edukia baino askoz harago doa. Gai “esklusiboak” hedatzen dira eta “irizpide orokorrak” ezartzen dira euren ustez partekatuak diren horietarako. Beste esparruetako negoziazio kolektiboak edukiz hustu nahi dute, bai lurralde-, bai enpresa-mailan. ELAren iritziz hau MONOPOLIOaren eta sindikalismo BERTIKALAREN aldeko hautu antidemokratikoa da.
- **2.- FINANTZAKETA ZIURTATU.** Estatu-esparrurako gordetzen diren gai asko helburu nabarmen baten ondorio dira, sindikatu eta patronal hauek dituzten finantzaketa-iturrien iraupena bermatu eta kontrolari eustea: formazioa, txartel profesionalak, batzorde eta fundazioak, etab. Sistema honi eutsi nahi diote, argi geratu den arren garestia ez ezik erabat alferrekoa dela. Beraz, monopolioarekin batera, CCOOk eta UGTk honelako hitzarmenekin finantzaketa ere lortzen dute.
- **3.- ESTATUKO EZ DENA EZ DUTE ERAGINGARRI IKUSTEN.** Erabaki dutenez, menpeko esparru batean erabakitako edozer estatuko sektore-hitzarmenekin kontrajarria dela balitz “ez hitzartutzat joko da, eta horrenbestez, eraginik gabea”, hots, “ez da inongo kasutan aplikagai izango”.
- **4.- ENPRESAKO HITZARMENAK, SEKTOREKOAK BAINO APALAGO.** Estatu kolektibo sindikatu eta patronalek nahi dute enpresa-hitzarmenak, zeinak Estatuan ezartzen denak baldintzatuta izango diren, sektoreko gailentzea. Hots, sektore-hitzarmena ez litzateke langileentzako “gutxienezko” bermatua izango.

CCOOei eta UGTri krisiak “elkarrizketa soziala”ren antzezpena zapuztu die; honez gero ezinezkoa da itxurak egitea ere. Halere, babesa ematen diote oraindik, jasotzen duten finantzaketaren truke. Duela gutxi jakin dugu LANBIDEko Administrazio-Kontseiluan parte hartzeagatik Confebaskek, CCOOek eta UGTk milioi 1 euro banatuko dutela. LANBIDEk berak eta prestazio sozialak murrizten dituen Jaurlaritzak hauei dirua ematen die, Lopezekin argazkiak egin ditzaten.

ELAREN BILERAK CONFEBASKEKIN: PROPOSAMENARI BURUZKO IRITZIA

ELAk azken hilabeteotan bi bilera izan ditu CONFEBASKEkin. Lehenengoan (irailaren 28an) patronalaren presidente berriaren aurkezpena izan zen. ELAk aukera baliatu egin zuen enpresarioen elkarteari bere azterketa jakinarazteko, politikaren utzikeriak eragiten digun kezka eta honek ekonomia errealean egiten duen kaltea barne. Hainbat arazo aipatu genuen: Banku eta kutzak dirutza handiak jasotzen ari diren arren krediturik ez egoteak dakartzan arazoak, atzeraldia okertzen duten erabaki politikoak, zerga-politika injustua eta, gure ustez, patronalak enpresak eta enplegua bizi dituen ekonomiarekin duen kezka eza.

ELAk patronala interpelatu zuen. Ezin da esan enpresen arazo nagusia kreditu eza dela eta eskubide laboral eta sozialen aurkako gurutzadan parte hartu. Argi dago bankuei ematen ari diren dirutza alferrik izango dela, eta patronalak hain egitate larriei buruz ezer ez esatea deigarria egiten da.

Bada, patronalak ez zeukan bat ere gogorik gai hauei buruz ELAekin eztabaidan sartzeko.

Bilera amaituta patronalak galdetu zuen ELAk ea zer iritziko zion Lanbidearteko Akordio bati, zeinaren edukia “EAEn dauden negoziazio kolektiboko esparruak bermatzea” litzatekeen. Une hartan ez genekien PPK negoziazio kolektiboko beste erreforma bat egiteko asmoa zuenik, eta ELAk CONFEBASKi erantzun zion negoziazio esparruak mantentzekotan interesgarria zatekeela gaia jorratzea; proposamen bat bazuten, bidali zezatela eskatu genien, geure aldetik aztertu eta erantzuna emateko.

ELAk gai honi buruzko berririk ez zuen izan bi hilabete igaro arte. Bigarren bileran ere, azaroaren 28an, patronalak ez zuen paperik ekarri eta azaldu zuenez, “gaiari buruz bere kideei galdetuta, hauek ez zuten soilik esparruak mantentzea nahi; gehiago nahi zuten”. Onartutako erreforma garatu nahi zuten enpresetako esparrua baldintzatzeko. Are gehiago? Ordurako jakina zen beste erreforma bat bazetorrela.

ELAk argi hitz egin zuen: Ez genuen parte hartuko desarautze handiagoa ekar zezakeen Lanbidearteko Akordio batean. Bestalde, egin zuten lehen proposamenari buruz (negoiazio egiturarena) esan genuen beste erreforma bat etortzear zenez balizko akordio batek ez zeukala zentzurik, segurtasun juridikorik gabea bailitzateke. Arau laboralak –esan genuen– etengabe aldatzen ari dira, betiere patronalaren onerako, eta aldakortasun hau ELAk oso kontutan izan behar du.

CONFEBASKEk gure argudioari “arrazoizkoa” iritzi zion, baina baita gehitu inola ere akordioa gainerako sindikatuarekin bilatuko zuela, CCOO, LAB eta UGTrekin alegia.

Gai honekiko hurrengo berria CONFEBASKen dei bat izan zen, non iragarri ziguten gaia aztertzeko lehen bilera deitu zutela, eta hiru sindikatu horiek bertan izango zirela.

Gure ustez CONFEBASKEk gauza bat nahi du: gobernuak etengabeko erreformak eginez nahi duena ematen dion bitartean sindikalismoaren laguntza izatea eta, eurek esan ziguten legez, “gizarteari mezu positiboak, adostasunezkoak ematea”. ELA ez dago honetarako prest.

ELAk uste osoa du zailtasunak gorabehera –zailtasun ugariak, izan ere– sindikalismoaren ardura dela, besteak beste, soldatak eta lan-baldintzak defenditzea. Eta helburu horrek garamatza antolakuntzaz, enpresen sindikalizatzear eta indar-erlazioaz hitz egitera. Baita, noski, borroka sindikalaz ere. Gure ustez ez dago beste biderik.

Euskal patronalak badaki zentralizatzeko soldatak pobretzen dituela, eta hori ondo datorchio; horregatik bereganatzen ditu CEOEren proposamenak. Confebaskek badaki Rajoyk ekarriko duena; are gehiago, esan du oso albiste ona izan dela kargu hartu zueneko hitzaldia,

konpromisoa agertu baitzuen “ezinbesteko” erreforma laborekin eta negoziazio kolektibokoarekin.

Legea eta gobernuak alde dituela... zeren truke aitortuko ditu patronalak lurralde-esparruak? Bigarren proposamenak argitzen du: enpresak are gehiago desarautzearen truke. Patronalak asko lortu du dagoeneko, eta badaki gehiago emango diotela; baina sindikatuak enpresen desarautzean inplikatu nahi ditu eta eragotzi egin nahi du lan-baldintzak hobetzeko aukera, zuzenean edo zeharka. Hots, gutxieneko sektore-hitzarmenetatik –zeinak enpresa mailan negoziatuz hobetu daitezkeen– maximo-hitzarmenetara igaro nahi du, hobetzeko eragozpenak ezarriaz.

Oro har plana, eragile desberdinekin, negoziazio kolektiboaren sabotaje bat da. Batetik, Zapateroren erreforma; bestetik, Espainiako sindikalismoak egin nahi duen garapena negoziatzeko aukera galarazteko, besteak beste, euskal esparruan; azkenik, amairik ez duen lan-eskubideei egiten zaien jazarpena, etenik gabeko erreformekin (azkena, Rajoyk iragarritakoa). ELAK uste du arduragabekeria dela honelako egoeran CONFEBASKI kreditua ematea eta mobilizazio sindikal zein soziala etorkizun denaren kontra ez zuzentzea.

ONDORIOAK:

1. ERREFORMEN XEDEA, LAN-BALDINTZEN TXIROTZE OROKORRA.

- a. Soldatek aberastasunaren zati handi bat galdu dute.

2. NEGOIZAZIO KOLEKTIBOAREN ARAZOA EZ DA SOILIK BERE EGITURA.

- a. Garrantzia du, baina ez da bakarra.
- b. Gakoa eduki erreibindikatioak eta, batik bat, antolakuntza sindikala dira, indar-erlazioa hobetuta gero eta errealitate prekarioagoari aurre egite aldera.

3. RAJOYEN ERREFORMA EZAGUTU BEHAR DA. CONFEBASKEN PROPOSAMENA ONARTZEA ARDURAGABEKERIA DA.

- a. CONFEBASKen proposamena onartzea, Rajoyk zer egingo duen jakin gabe, arduragabekeria da.
- b. Patronalak abantailaz jokutzen du, bai baitaki Rajoyengandik askoz gehiago lortuko duela.
- c. Erreformak epe luzera aztertu behar dira. Zer etorkizun dakarkiguten eta horri aurre egiteko zer asmo dugun.

4. CCOO eta UGT: ERABAT ZENTRALIZATZEA, BI HELBURUREKIN:

- a. Ordezkaritzaren monopolioa eta finantzaketa.
- b. Madrilen dira koherente; hango erabakiek inondik ere ez dute bideragarri egiten Lan Harremanen eta Gizarte-Babesaren Euskal Esparrua.

5. ZEIN DIRA ELAREN HELBURUAK?

- a. Langileen Estatutuko 84. artikulua aldatzea. Gehiengoek erabaki ahal dezaten zein esparrutan eta zer negoziatu nahi den. Gehiengoen erabakiekiko errespetua eta eragina izateko aukera.
- b. Sektoreko negoziazio kolektiboa enpresentzako bete beharreko gutxieneko bat izatea.
- c. Ez dadila eragotzi enpresetan sektoreko edukiak hobetuko dituzten akordioak negoziatzea.
- d. Soldata eta lan-baldintzak defenditu behar ditugu. Hau da funtsezko eztabaida, eta sindikalizatzeko eta antolatze beharra agerian uzten du; klase garen aldetik indar-erlazioa hobetu behar dugu eta borrokatu. ELAK ez du beste biderik ikusten.

